

Aingurasutegi kaleko hainbat aparkaleku ezingo dira erabili behin-behinean segurtasuna bermatze aldera

- **Luizia gertatu da Leitzaran ibaiko arroan, eta badaez badako neurri gisa hartu du Udalak aipatu aparkalekuen indargabetzea**
- **Neurketa topografikoa egingo da lurraren mugimenduaren dimentsioa neurtzeko**

Andoainen, 24-10-02.- Azken egunetan Aingurasutegi kaleko zenbait aparkaleku indargabetu behar izan dira behin-behinean eremu horretan Leitzaran ibaiaren arroan izandako luizi txiki bat dela eta. Segurtasuna bermatze aldera hartu den neurria izan da.

Udaleko Zerbitzuetako lan-saileko teknikariak lanean ari dira horrek izan ditzakeen dimentsioa neurtze aldera. Neurketa topografiko batzuk egingo dira lurraren mugimendua zenbatera artekoa izan den neurtu eta identifikatu ahal izateko. Edonola, behin behineko hainbat neurri hartuko dira errekaen ur emariak ez dezan kaltea handiagotu. Edonola, egindako lehen peskizek ziurtatu dute bermatua dagoela inguruko etxebizitzaren segurtasuna.

Hortaz gain, gune osoaren azterketa geoteknikoa egiteko prozedura ere jarri du martxan Udalak; helburua da zonalde guztiaren azterlana egitea, lurra zein egoeratan aurkitzen diren ezagutzeko.